

MARTIN UGALDEREN BIZITZAN ZEHAR (1921-2004)

Bidaia bat egitea proposatzen dizuet, 83 urtetan Martin Ugalde Orradrek egin zuen bera.

Bide luzea da eta presaka ibili beharko dugu, baina noizbehinka geldialdiak egingo ditugu atsedena hartzeko eta bidearen nondik norakoak begiratzeko.

Bide honek hiru etapa eta hiru paisaia desberdin ditu:

1. Lehena, 1921etik 1947 bitartekoa, Andoainen abiatu eta bertan bukatzen dena.
2. Bigarrena, 1947tik 1969 bitartekoa, Caracas eta Venezuelan barrena egingo duguna.
3. Eta hirugarrena, 1969tik 2004 bitartekoa, berriz Euskal Herrian zehar, Hondarribian hasi eta Donibane Lohizunetik barrena ibili ondoren Hondarribian amaitzen dena.

* * *

Lehen etapa

Abia gaitezen.

Andoainen abiatzen gara, 1921ean. Abiatzeko unean baditugu arazotxo batzuk: *sub conditione* bataiatu behar baitute Martin etxean aurretik, erretoreak Andoni euskal izena ez duelako onartu nahi.

Martin mutikoaren bizitza 15 urterekin goitik behera aldatzen da, F. Francoren altxamenduarekin. Gure bidaiak hemendik aurrera bihurgune bihurri eta ugari izango ditu. Familiarekin batera Andoaindik ihesi doa 1936ko abuztuan: 2 hilabete Mundakan, 8-9 Bilbon, amarekin Frantziara, Nièvre-ko Château Chinon-era. (Aita frontean da, anaia Soviet Batasunean, gero ama aitarengana Catalunya, eta Martin bakarrik). Handik Donibane Garazira Eusko Jaurilaritzaren koloniar urtebete, segidan Donibane Lohizuneko koloniar lau hilabete, Gurs-eko kontzentrazio-zelaira hilabete t'erdi. Eta lau urte eta bi hilabeteko esilioaren ostean, salbokondukto batekin, berriz Andoaina, eta bi urte ondoren atzera kanpora: soldaduskara hiru urterako, Marokora («bigarren esilio» dio Martinek), bi urte gehiago Andoainen egin eta 1947ko urrian Caracasera, 25 urterekin.

Familia osatzera joan ziren Martin eta ama Caracasera, aita han esiliatua baitzen eta Joseba anaia bakarra ere Soviet Batasunatik hara eramán berria baitzuten.

Egin dezagun geldiune bat puntu honetan.

Martinek Ameriketara garatuko dituen ofizio eta afizioen aurrekari askorik ez dugu lehen paisaia honetan, baina bai bat edo beste: mutiko zela bi literatur sari irabazi zituen, *Larramendi* saria Andoainen eta Bilbon zegoela *Pulgarcito* saria. Soldaduskatik bueltan, 1945ean, *Diario Vasco*-rako Andoango berriemaile gisa kronikak idazten ditu, erdaraz noski, eta erdal grafiaz. Euskal deiturak *tx*-ekin idaztea debekatu zuen.

Hauexek dira, izango den literaturgile eta kazetari handiaren hasiera xumeak.

Bigarren etapa

2. Bidaia bigarren aldi honetan 22 urteko bidea egingo dugu. Paisaia guztiz aldatu da, Caracasen gaude, F. Francoren diktaduratik urrutu. Askatasuna zer den hemen konturatzen da Martin: autozentsurarik gabe idaz dezake, euskal gaietan bezala bestelakoetan. Eta halaxe egiten du.

Martinen bideak Euskal Etxera garamatza aurrena: han aurkitu zuen babeslekua, bertan murgildu zen iritsi orduko: «Eusko Gaztedi» talde mistoa sortu zuen, *Eusko Gaztedi* eta *Euzkadi* aldizkariaren zuzendari izan zen, EAJn eta ELAn afiliatu zen, Euskal Etxeko lehendakari ere izan zen.

Baina gure bidaia bihurtu behar du gutxi barru 50eko hamarkadan: Euskal Etxeak Martinentzat «ghetto» itxura gehiegi du, ez du hor itxi nahi bere burua. Norabide aldaketa iraultzaile bat egingo du. Venezuelan integratzea erabaki du. 1952an Espainiako naziotasunari uko egin eta Venezuelako naziotasun txartela hartzen du. Ordurako beste urrats bat ere emana du: Caracasera iritsi bezain laster burdinkiak eta elektrogailuak saltzen hasia zen herriz herri, gero General Motors-en jarraitu zuen lanean 8 hilabetez, baina 1949an lan segurua utzi eta *Elite* Caracaseko astekari bakarrean *free lance* gisa hasten da lanean.

Bidaia honek bi urte irauten du, arrakasta handiz. 1950ean sekulako arrakasta lortu baitzuen bere erreportaia batek, Carlos Delgado Chalbaud politikaria hil zutenean egin zuenak. Aldizkariaren zuzendaritzakoa da berehala Martin, erredaktore buru, *de facto*-ko zuzendaria.

1952an Caracasetik New York-erako bidea egin behar dugu, Michiganeko Unibertsitatera baitoa Martin ingelesa ikastera eta literatur ikastaroak egitera, *Elite*-ren baimenarekin.

Handik itzulita, 1954an *Elite* utzi eta *Creole* petrolio konpainiara egiten du jautzia, bertako *El Farol* aldizkariaren buru izateko.

Bidaia honek joan-etorri azkar bat egin behar du puntu honetan: 1955ean Euskal Etxean ezagutu duen neska santzurtziar batekin ezkontzera Zurich-era baitator. Ezkondu eta buelta. Hiru seme-alaba izango ditu Anamarirekin Caracasen.

Venezuelan zehar herriz-herri jarraitu behar diogu Martini, erreportaiaz erreportaria. Hirurehun lan periodistiko baino gehiago idatzi du 50eko hamarkada honetan.

Sariz-sari ere jarraitu behar diogu. Venezuelako literatur sari preziatuenak bereganatu ditu, nola erreportaietan hala ipuinetan, *El Nacional* eta *El Universal* egunkarietakoak edo *Estampas* aldizkariko sariak, besteak beste.

60ko hamarkadaren hasieran, biraketa berri bat egiten du Martinen bideak: kazetaritza praktikoan etenaldi bat egin eta Standard Oil Konpainiaren beka batekin Ipar Ameriketako Evanston-era doa kazetaritzako ikasketak egitera. Familia eta guzti doa, bi urterako. Kazetaritzako «Bachelor» eta «Master» tituluak atera eta berriro dator Caracaseira, Creole-era atzera, baina orain maila bat gorago: *El Farol* zuzentzeaz gainera *Nosotros* aldizkariaren ardura ere berari ematen diote.

Aurreko hamarkadaren amaiera aldera bi ipuin liburu ezagun argitaratu zituen: *Un real de sueño sobre un andamio* (1957); *La semilla vieja* (1958) eta orain *Cuando los peces mueren de sed* (1963) erreportai-bilduma eta ipuinekin *Las manos grandes de la niebla* (1964) ezagunen artean. Venezuelako gizarteko gaiak dira, bertakoen-tzat idatziak.

Caracaseko literatur munduan Martinen izenak sona handia du urte hauetan.

Bidaia honek, 60 hamarkada honetan, beste paraje batzuetara ere bagaramatza, venezolarrentzako kazetetatik urrun. Martinen ekoizpen idatzien aldaketa nabarmena ageri da. *Zeruko Argia*-n idazten hasten da eta euskal esilioko hainbat aldizkaritan: *Al-derdi*, *Euzko Gaztedi*, *Eusko Deya*, *Tierra Vasca*, eta beste.

Euskaraz idatzi eta argitaratu ere egiten du: 1950ean Euskal Etxeko saria irabazi zuen *Itzalleak* aparte, 60ko hamarkadakoak dira (eta besteak gaiez ere bestelakoak) gainerako liburuak: euskara dute gai, kezka edo sorburu, hala nola, *Ama gaxo dago* antzerkiak (1964), *Gurpegin aspaldi gertatua* antzerkiak (1965), *Sorgiñaren urrea: Umentzako kontuak* (1966), *Panpiñak* (1968). Haurrak, bere haurrak, euskaraz hezitzeo idatzi ditu hauetako batzuk. Hizkuntzaren kezka du *Unamuno y el vascuence* liburuak (1966), noski.

Bidaiaiko etapa honen azken partean gaude, itzuleraren bezperan. 1967an itzuli nahi du Euskal Herrira Martinek, baina ezin du Espainia frankistan sartu. Emaztea eta hiru haurrak datoz aurrea, 1967an, eta handik bi urtera Martin bera.

Baina itzulerako bidaia egin aurretik gelditu egin behar dugu piska bat, eta egin-dako bideari begiratu bat eman.

Talaia honetatik atzera begira jarrita paisaia tropikala ikusten dugu: Martinen bitzita, gurean udaberrian natura bezala, han lehertu eta loretu da, 22 urte horietan: pertsona bezala, kazetari bezala, idazle bezala, abertzale bezala, euskaltzale bezala. Hiruzpalau puntu azpimarra ditzakegu:

a. *Euskaldun unibertsala*

Caracaseko gizarteak ongi ulertu zuen Martin: euskaldun eta venezolar gisa eza-gutzen zuten, biak batean, batabesteari kontrajarri gabe. Bi aberriko gizona izan da. Venezuela, Martinentzat, ez da bigarren aberria izan, «beste» aberria baizik. Ez da ña-bardura nimiñoa baizik eta jarrera sendoa. Bi aberriei, bie, eman zizkien bere maitasunaren frogak. Venezuelako gaztelanian idatzi zuenean, osoki zen hangoa: hizkuntzaz gainera hizkeran, hiztegian, gaietan, pertsonaietan. Gizarte hartako gaiak eta gizarte harentzat idatzi zuen. Venezuelarra zen, lege eta gizalegez. «Paradigma de la inmigración buena» izan zela Martin aldarrikatu zuen euskal jatorriko Odriozola kaze-

tari venezolarrak. Niretzat euskaldun unibertsalaren eredu bikaina da Martin eta jarra horixe saritu zion 2003ko irailaren 10ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Herritar Unibertsal izendatu zuenean.

b. Itzulera

Martinek Caracasen maila sozioekonomiko oso ona zuen, idazle eta kazetari gisa prestigio handia, bertan sorturiko familia, jatorrizko familia ere bertan. Dena han utzi, emaztea eta hiru haur txikiak hartu eta jatorrizko aberrira etortzea erabakitzen du.

Zergatik eta zertarako?

Hiruzpalau arrazoi ematen ditu berak. Laburbilduta: 1) seme-alabak euskaldun osoak izatea nahi du; 2) euskaraz bere herrian idatzi nahi du; 3) Agirre lehendakariaren heriotzak utzi zuen hutsunea askoren artean bete behar dela uste du.



c. Euskararen defentsa sutsua eta burutsua

60ko hamarkadan zehar oso kezkatua ageri da Martin diasporako euskal herritarren artean somatzen duen euskararekiko axolagabekeria eta utzikeria dela eta. Utzikeria pertsonala, eta politikoa.

Honen aurrean bi norabidetan lantzen ditu artikuluak: batetik, Unamunoren ideien eraginaren aurka euskararen gaitasunaren alde; eta bestetik, euskararen lehentasuna burruka politikoaren baitan.

Artikulu batzuen izenburuak ongi salatzen dute kezka: «El conformista y el euskera» (1965), «El euskera (*no*) se muere, irremediablemente» (1965), «La importancia del euskera» (1965), «¿Qué importancia tiene el euskera para el nacionalismo vasco?» (1965), «La limitación de los euskeranómanos» (1965).

* * *

1. Euskararen balio komunikatiboa eta kulturala defendatzen du alde batetik, polemika giroan eta kontraia gisa.

Polemikaren sua Antonio Aparicio olerkari espainiar erbesteratuak piztu zuen. 1958an Caracaseko *El Nacional* egunkarian «Ruralidad, nacionalismo» idazlana eman zuen argitara, euskararen balio eza eta eginkizun literarioetarako gaitasunik eza erakutsi nahian Unamuno aipatuz. Martinek derrefente erantzun zion: «Unamuno también dijo esto...».

Martinen tesia ongi laburbiltzen da artikuluko esaldi honetan:

¿Que el vasco resulta pobre, inhábil para su función literaria? Las lenguas son como las madres, se las quiere igual si son mujeres de grandes encantos como si son unas tímidas mujeres de pueblo, eso importa poco para que se las quiera conservar. Pero la lengua vasca no desmerece en nada a las de gran difusión, si no es para los que la ignoran.

Bero-bero eginda ibili zen Martin, eta beroan idatzi zituen bi liburu gai beraren inguruan: *Ama gaxo dago* euskaldunentzat eta *Unamuno y el vascuence* Hego Ameriketako talde abertzale eta espainiarrentzat.

* * *

2. Urte beretan dabil, baita ere, euskarak herrigintzan duen garrantziaren kontzientzia piztu nahian.

Hemen aurrean zuena, ez zen Aparicio espainolista, baizik eta bere alderdiko abertzaleak. Horregatik eraman zituen bere tesiak *Alderdi* aldizkarira, «Euzkadi, ¿a dónde va?» izenburupean (1964).

* * *

Haren tesia zehazte aldera: bi ekintza mota bereizten ditu Martinek, ekintza politikoa eta ekintza kulturala. Galdera da, bietatik zein den premiazkoena eta garrantziz-

koena euskal herrigintza edo aberrigintzan. Burruka kulturala lehenesten du Martinek (1964an!). Urak aldegin eta gero urpresa alferrik dela dio Martinek.

Martinen tesiaren aurka altxatu zen Manuel Irujo *Alderdi*-ko hurrengo artikulua batean burruka politikoa lehenetsiz:

El enemigo número uno de la nación vasca, de su lengua, de su cultura, es el régimen franquista.

Erantzunean Martinek lehengo lepotik du burua:

En mi opinión, esta de la ‘cultura’ es una carrera contra el reloj. No se trata sólo de llegar a la solución política, o de Estado, que yo estoy seguro que llegaremos; sino que se trata de llegar al Estado a tiempo aún de seguir siendo la nación que hemos sido, de seguir siendo nosotros mismos.

Martinek bere herriari eta abertzaletasunari 1965ean kritikatzeko diona da hizkuntzari lehenetsunetik ez eman izana sekula. Esaldi oso gordinak ditu, hala nola:

- «los vascos no hemos hecho realmente nada importante aún, como pueblo, para salvar el euskera, sino lamentarnos, sino dolernos; o, (...) resignarnos.
- No hemos hecho nada importante, porque nuestro pueblo nunca ha puesto su lengua (...) a vivir plenamente en la escuela, en la Universidad, para saber si es capaz o no de mayor vida, de mayor vitalidad.

Euskarak abertzaletasunaren barruan duen garrantzia atzera azpimarratzen du beste artikuluan baten ere:

¿Qué importancia tiene el euskera para el nacionalismo vasco?: Somos nacionalistas por esto, porque queremos encontrar una manera de ser nosotros mismos y ser nosotros mismos implica sobre todo ser euskaldunes, poseer la lengua.

Hirugarren etapa

3. Bidaia hirugarren etapa 1969an hasten da eta 35 urteko iraupena du. Hondarribian dugu kokaleku nagusia.

Etapa honen hasieran bidaia batzuk hara eta hona egingo ditugu, bidaia motxak: Euskaltzaindara, *Zeruko Argiara*. Martinek euskaraz lan eginez bizi nahiko luke, baina ezin du. Euskaltzaindiak eta *Zeruko Argiak* lana badute, baina dirurik ez Martin eta bere familia mantentzeko. Martinen euskal lanak 10 urte itxaron beharko du.

* * *

Bidaia bidegurutze batera iritsi da: herrigintza jartzen duen norabidea hartu behar dugu. Martin politikaren bidetik abiatu zen eta alderdiko lanetan sartu nahiko etorriberritan, zein eta bera, Estatuan sartu ahal izateko politika ez zuela usaitu ere egingo agindu behar izan zuena: EAJn Ajuriagerraren taldekoa da, eta barruko Batzorde eraginkorreko kidea 1970ean hasita; hurrengo urtean Leizaola lehendakariarekin Eusko Jaurlaritzako Kontseilaria; Alderdi izeneko EAJren organo ofizial eta klandestino zuzendaria. Eta halako batean, 1973an, Espainiako poliziak Estatutik

kanpo bidaltzen du. Donibane Lohizunen hartzen du egoitza. 1976arte ezingo da itzuli Hondarribira.

Klandestinitateko bidearekin batean beste bat ere hartu du Martinek. Handik abiatzen bagara gure bidaian historia lanetan ikusiko dugu Martin. Martin ez da historiagilea berez, kazetaria da, eta kazetari gisa arituko da historia lanetan ere. Zergatik abiatu den bide honetatik behin eta berriz esplikatu du berak: Euskal Herrira itzuli zenean informazio falta izugarria ikusi zuen bazterretan. Borondate politikoa, burruka, saltzeko moduan omen zegoen, baina horren kontzientzia informaturik ez, Francok ezabaketa osoa egina baitzuen. Desinformazioari aurre egiteko, memoria historikoa elikatzeke materialak biltzeari ekin zion. Arnasaldi berekoak eta helburu bera dutenak dira bai *Hablando con los vascos* saila (luzeagoa izan nahi zuena) eta baita ere historiaz idatzi zituen *Síntesis*, *Nueva Síntesis* eta sei liburukitako *Historia de Euskadi*. Helburu berekin jarraituko zuen geroago ere hainbat abertzaleren biografiak idatzi zituenean.

Bidaia honetan beste bihurtune nabarmen batekin topo egingo dugu, baina adi egon behar da, sarri ustekabeen pasatzen baita: Donibane Lohizunetik itzuli zenean, 1976an, politika lanak utzi eta kultura lanak lantzeraz jo zuen Martinek. Eta ia inork erreparatu gabe handik urte batzuetara bide berri bat hartu zuen: 90eko hamarkadan euskaraz bakarrik idatzi du Martinek. Bihurtune horretan ez dugu jende askorik ikusiko. Ez dakit bakarra ez ote den Martin: merkatu zabaleko erdaratik euskararen mundu txikira lerratu den asko Martinek ez zituen inguruan ezagutu.

Euskararen hautu honetan aldapa ugari igo behar izan ditu Martinek. Jada Caracasen, *Umeentzako ipuinak* liburua argitaratu zuenean, Baionako erabakiak txalotu eta bete zituen. Euskal Herrira etorritakoan, Euskaltzaindiaren bidea hartu zuen: makina bat alderdikide hasarretu zitzaizkion bere inguruan horregatixe, h-a dela eta ez dela. *Deia*-ko egitasmoan *Euskarazko Deia*-ren ardura hartu zuen Martinek 1977an baina handik urtebetera utzi egin zuen, euskarari eta euskal kulturari ez zitzaielako berak nahi adinako garrantzia ematen.

Euskaldunon Egunkaria-n bera izan dugu hasieratik lehendakari eta maisu, gutura egon da euskarazko egunkariaren ametsa egia bihurtu baizitzaion, baina inputatugai dela hil da. Sasoiko (eta bizirik) balego, besteok bezala prozesatua zegokeen, noiz epaituko. Ez dago eskubiderik!

Martinen bideak bide-seinale garbi bat izan du beti euskaltzaitasunera darman norabidean: koherentzia. Koherentziak ekarri du Caracasetik Euskal Herrira. Koherentziak ekarri du politikatik kulturara. Koherentziak ekarri du erdaratik euskarara.

Martin eta Euskaltzaindia

Bidaia honetan Martin eta Euskaltzaindiaren arteko harremana ezin dugu bide bazterrean utzi.

Ameriketarik bueltan, Euskaltzaindiaren babesa bilatu zuen. Berehala hasi zen Euskaltzaindiarekin kolaboratzen, euskara batuaren inguruan-eta. 1973an euskaltzain laguntzaile izendatu zuen Euskaltzaindiak eta handik 20urtera Ohorezko euskal-

tzaina, 1993an. (1973an euskaltzain konfirmatu egin zuela dio Berak, Ameriketan zegoela izendatu ondoren?)

Lankidetzarik sakon eta emankorra 1977koa izan zen: *Euskararen liburu zuria* eta gero *Hizkuntza borroka* Martinek berridatzi zituen. Lan zaila, bikain burutua. Martinek asko ikasi zuen *Liburu Zuriarekin*. Euskararen aldeko ikuspegia, jada 60ko hamarkadan landu zuena, aberastu, heldu eta indartu egin zitzaion orain. Garbi antzematzen da hori *El problema vasco y su profunda raíz político-cultural* saioan (1980).

1980an «Euskalariaren Jardunaldiak» Euskaltzaindiak antolatuta zituenean Martinek kazetari-lana egin zuen.

Urte batzuek beranduago, 1984an Jose Antonio Aranarekin batera *Euskaltzaindiaren historiatxo*a idatzi zuen.

Martinek errespetu handia zion Euskaltzaindiari, gure Herriko instituzio gisa. 1973an euskaltzain laguntzaile edo urgazle egin zutenean honela adierazi zuen bere ikuspegia:

Ara, gure Herriari egiazko instituzio gutxi geratzen zaio, eta gutxi horietako bat Euskaltzaindia da. Gaurko Euskaltzaindiak izango ditu ahuleriak, eta egingo ditu hutsak; hala ere, hauxe da hizkuntza arloan euskaldunok dugun instituzio bakarra, eta errespetatzea, zaintzea eta berritzea izan bedi gure eginkizun nagusia.

Amaiera

Amaitu dugu ibilaldia. Azkar, azkarregi ibili gara. Martinek irekitako bide gutxi batzuk soilki korritu ditugu. Pasadizioan ikusi duguna asko da izan, baina Martinek egin duenaren ondoan deus gutxi. Martinen lanetan ezagutzen dena hemen ikusabartu duguna baino askoz gehiago da, noski, baina ezagutzeko dagoena are eta gehiago. Gaur egun erreferentzia bibliografiko bezala ezagutzen diren idazlanak 700 eskas dira, baina denetara 2.000tik gora lan dira seguru.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle eta ohorezko izendatu zuen gizonaren lanaren bolumena izugarri handia da, tamainaz noski, baina kalitatez ez gutxiago. Izendapenean Martinekin ez zuen huts egin Euskaltzaindiak.

Joan Mari Torrealdai